

Bilboko Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolarako eskaeren aurkezpena

Eskola hauetako ikasleentzako epeak EHUko gainontzeko zentro guztietako ikasleentzat aurreikusi eta argitaratutako berberak izango dira. Gertatzen dena da ez daudela Unibertsitateko GAUR sisteman integratuta eta horren ondorioz **ezin dituzte eskaerak aurkeztu aplikazio informatikoa erabilita**. Hori dela eta eskaera prozesua ondoren azaltzen den moduan egingo da:

Mugikortasun programan parte hartzeko interesa duten Bilboko Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolako ikasleek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko diote bere ikastegiko koordinatzaileari:

- 1.- Eskaera inprimakiaren bi kopia, osorik beteta. Bertan 8 **unibertsitate hautatu daitezke gehienez**. Badaiteke eskaera programa betean baino gehiagotan egin, baina mugikortasuna programa horietako BAKAR BATEAN burutu ahal da denbora horretan.

Ezinbestekoa da inprimakian hautatutako norakoen lehentasunordena ongi pentsatzea, zeren eta ikasleari lehenengo aukera ematen zaionean, honek ezin baitu ukatu eskarian markatutako beste aukera baten mesedetan.

- 2.- NIE (atzerritarrak) edo **NANaren kopia indarrean delarik** (bi aldeetatik).
- 3.- **Ikasle eskatzailearen banku-datuak** agertzen dituen aurrezki-libretaren lehenengo orriaren fotokopia, ekonomi laguntza bertan sartu ahal izateko. Ikasleak kontuko titular edo titularkide izan behar du.
- 4.- Hizkuntza ziurtagirien kopiak edo koordinatzaileak eskatutako beste dokumentazioa.
- 5.- Ikasketa-espedientea.

OSO GARRANTZITSUA: osorik bete gabe dauden eskariak ez dira kontuan hartuko.